

NanoGUNE, nanozientziaren eta nanoteknologiaren alorreko Ikerketa Kooperatiboko Zentroa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean dago. Ikerketa bikaina egitea du helburu eta Euskal Herriko nahiz munduko industria-jarduerari ezagutza eta teknologia transferitzeko konpromisoa du ardatz.

NanoGUNEk ikerketa bikaina egiten du nanozientiako eta nanoteknologiako hainbat alorretan. Hauexek dira alor horiek:

- **Nanomagnetismoa**
- **Nanooptika**
- **Automihiztadura**
- **Nanobiomekanika**
- **Nanogailuak**
- **Mikroskopia elektronikoa**
- **Teoria**
- **Nanomaterialak**
- **Nanoirudia**
- **Nanoingeniaritza**

gure industria-ehunaren garapenean eragin nabarmena izan dezaketelakoan.

Bikaintasuna bilatzen dugu etengabe, gure jardueraren arlo guztietan: ikerketan, teknologia-transferentzian, lankidetzan, prestakuntzan, zerbitzuetan eta komunikazioan.

Pertsona eta erakunde publiko anitzen laguntzari eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzari eta gure Nazioarteko Aholku Batzordeari esker, punta-puntako instalazioak ditugu, bai eta ospe handiko ikerlariz osaturiko lantaldea, mundu osoko laborategiekin eskuz esku lanean diharduena. Gure langileek osatzen dute gure arrakasta-berme nagusia. Abangoardiako azpiegitura batean punta-puntako ikerlariak ditugularik, gure zentroa nanozientziaren ikerketaren arloko onenen artean jarri nahi dugu.

Ikerketa bikaina egiteko eta nanoteknologiaren garapenak eskain ditzakeen aplikazioak eta aukerak etengabe bilatzeko konpromisoa hartu dugu, horrela Euskal Herriaren lehiakortasuna areagotuz eta gure interesadunen nahia asez. Gure interesadunen artean hauexek ditugu: gure langileak, tokiko industria, erakunde publikoak eta, oro har, herritarrak. Horretarako, jardunbide onenen bila ari gara etengabe eta kasuan kasuko eskakizunak betetzen ditugu; bereziki, UNE 166002 arauaren ondoriozko eskakizunak, arau hori baita gure kudeaketa sistemaren oinarria.

Horren guztiaren berme gisa, honako adierazpen hau sinatzen dut.



José M. Pitarke

Zuzendari Nagusia